**E**LA sindikatuaren historian dago, bestak besta, bere eliztarrak epícenori esker: aldatuaren arbibategia erre zuen Mola emandako holpea eta ordu gubira, 1936ko uztalean, ehunaka solidarioen bietzak salbatuz. Egiusateko, eliztza horren merezimenduaren parte handia bere senarreraren kokatu behar da, bere (José Luis izenezko) iran batzen Nabearenak kale Nagusiarra joan zina, milisten eta falangisten artean. 16 urtean burutu zumitzen arantzaz hori, eta arbibategia eskuatu behar laster eteneko egijen zen aldar eramateko. Orduan hai, Nicolásek datu eta zerdegia guztiek ere egijen zituen etablio sindikatuak. Haik ore, Nicolás García-Falcesen bilakasera arras antzagoa zen, Eusko Erregelatuenten Elkartaren (SEV, 1933an ELAri sartu zen erakundea) zunderritarrak hasita. Gerosoago, 1936ko martxoaren 15ean Nafarroan sindikatuaren aurrendoko klanak daturia izendatu zuten. Leherdabideak eta bekerra, gerra ostean ez baita Nafarroako antzeko hobi berreskuratu. Kontulari lanetan ibiltzen zituen Foru Aldundian eta Ospitale Psiquiátrikoan, eta horretako agintan kartutak babestu zituen Gerra Zibilean. Nicolásek bere burua zibetatu zuen, baina bere hizkuntza izana osoan behar izan zuen armada frankista, atzin babestu zindakon. Gerra buzanztakoa, Nicolásek Aranzadi argitaletxearen lan egin zuen, baina zuri hazi zuen bere jarduerak sindikalak berreskuratu.

**Ehunaka  
solidario  
salbatu zituen  
afiliatuaren  
artxibategiari  
sua emanez,**  
**1936an**

**ELA**  
eusko sindikatua

ELA: Nafarroako sindikatua

**ELA 100 URTEAK**  
nuskal sindikatua

**D**E Honorato Pla Landa se dice que fue la primera voz de ELA en Navarra, pues a él le correspondió leer públicamente el acta de constitución del sindicato en este territorio. Sin duda fue uno de los pioneros, sobre todo impulsando la agrupación de Banca, Seguros y Oficinas, de la que fue vocal. Aún destacó más su labor de formación sindical y política, tarea para la que recorrió Navarra junto a compañeros como Felipe Ornatibia y Benjamín Clivett. Aprendió euskera y recibió una extensa biblioteca que nunca se pudo recuperar después de la Guerra Civil. De grandes inquietudes intelectuales, trabajó primero como recaudador de arbitrios en el puerto de Lizarruri y más tarde como profesor en distintos destinos. En Eugi conoció a la que luego sería su mujer, Modesta Larramendi, euskaldunarra con la que tuvo nada menos que doce hijos, pero tres murieron en la primer infancia. Eludió la represión de 1936 por su carácter religioso, aunque al precio de trasladarse a Ribafriada, adonde fue a buscarle una patrulla de exaltados fascistas, sin éxito, afortunadamente. Después de la guerra fue secretario de Piedramillera, Etayo y Olejua, y tuvo la mala suerte de fallecer en un accidente de motocicleta a la altura de Puente la Reina el 3 de marzo de 1957.

**De gran nivel intelectual, destacó en la formación de sus compañeros sindicales**

**Honorato Pla Landa**  
(Etayo, 1905-Gares, 1957)

**LA PRIMERA VOZ DE ELA  
EN NAVARRA**

**H**ONORATO Pla iban ormen zen ELAren lehentzko abetza Nafarroan, sindikatuaren sorrearen agiria inskurtzea beraiz zegoelotako, eildaldi publiko batean. Zalontza izanik gabe, bera zin atzindariariko bat, Banca, Asegurua eta Bulegoen federazio sindikatua bultziz, eta gero horren zuendartza parte hartuz. Nolanahi ere, bera agrikizun nequeja formuluntza lana zin, bera soldario esagun batzuekin batera, Felipe Ornatibia edota Benjamín Clivettren batera, bestetik besta, Nafarroa osoan barna joll baitziz ikastaroak ematen. Euskar ilasi zuen eta Ibarregi zabal bat bildi zuen, batira Gernien otsasun azin leon zuen berreskustu. Jaitzun: intele-

tualak jota, zerga bilketa lanetan hasi zen Lizarruri mendatean. Geroago irakasle lanera jo zuen, hairbet lekutan. Horien artuan, Eugi; non bere emaztua ezagutu baitzen. Modesta Larramendi bertako euskaldunzarraskin 12 seme-alaba izan ztuen, batira horietako hiru lehontziazko haurtzaren hil sizartzien. 1936ko erresrescia eldin zuen bera sineزمen erlijiosoa esker, baina hala eta gaitz ere Ribafriadan joan behar zuen zuen. Bertara ore harribildu ziren faixak berril bila, baina ez zuen aurkitu. Gerra ostean ikastari bezale lan egiti zuen. Elsior, Piedramillera eta Olejua, eta motocileta istripu batian undiorre hil zen, Garesetik gertu; 1957ko martxoaren 3an.

**Bere kultur  
maila altuari  
esker,  
formakuntza  
ikastaroak  
ematen  
zizkien  
elakideet**

**ELA**  
NUSKAL SINDIKATUA

## Cien años de transformación y lucha

**ELA 100 URTEAK**  
euskal sindikatua

**L**A actividad sindical de la mujer era, desgraciadamente, una excepción hasta hace pocoos años, pero la labor de la pamplonesa Julia Fernández Zabaleta fue excepcional por muchas más cosas, no sólo por su insólita condición de mujer en un mundo de hombres. Impulsó el Emakume Abertzale Batza de Iruña y aprendió euskera ya de adulta. Mientras trabajaba de maestra en las escuelas municipales de San Francisco, creó la primera Euskal Eskola de Iruña con un improbo trabajo militante y tras incansables gestiones con las autoridades republicanas. Desde muy joven, ya como aliada de ELA, impartió charlas por todo el país defendiendo posturas progresistas e incluso feministas para la época, con una crítica muy clara al papel que el nacionalismo vasco reservaba a la mujer en los años 30: "No nos basta con esperar al matrimonio; una mujer puede desempeñar cualquier cargo", defendía Julia con vehemencia. Tras la rebelión franquista fue suspendida de empleo y sueldo y debió refugiarse en Gélatia (Labordet) junto a su hermano, el abogado Valentín Fernández, también solidario. Tuvo que soportar incluso el intento de excomunión que le lanzó el vicario de Pamplona en 1951, y no pudo impartir clases hasta 1958, tres años antes de su muerte.

**Fue muy crítica con el nacionalismo tradicional: "Las mujeres podemos hacer cualquier trabajo"**

**Julia Fernández Zabaleta**  
(Iruña, 1895-1961)

**ANDEREÑO FEMINISTA**



**E**MAKUMEKOEN jarduera sindikal oso eguztian ikusi da orain arte, zortzurrez, Iruñako Julia Fernández Zabaleta irundarraren jarduera bikaina eta deigarrria izan zen besterik arrazoi askorengatik, eta az bakarrak gizonetako menderatzen duen arloan emakumea intsingatik. Iruñeko Emakume Abertzale Batzuen sortzaileetako bat zen, eta osikorri ikasi zuen heldu aroan. San Frantzisko eskolan irakasle bezala sartzen zen bitartean, lehentikotik Iruñeko Euskal Eskola sortu zuen, oso lan gogotsu eta Errepublikaren agintarietako negociazio aranlitasunen ondottik. Oso gaztezik, jada ELAren aktibista bezala, hitzaldi asko ezkaindu zituen Euskal Herrian berne, jarrera aurrekoak defendatuz, notabail ere meu feminista hedatu. Julial gogor lehittakoen zuen garaiko mugimendu abertzaleak emakumei erreservatzen zien papera: "Guretzai ez da nahiako eskerzia lizaratu; edozein emakumeek nahi duen lana bete dezakelako". Kolpe frankista geritutu eta berehalde erplegi eta soldado kentu zizkioen, eta erbesterratu zen Lapurdira, Getari herrira, bere amaria Valentín Fernández Iruñeko abokatuarekin batera. Siengaitza den arren, esku-mikatzeko mehatua jasan behar izan zuen 1951ean, Iruñeko blear-oengandik etorritako alusazioaren medio. Iruñasterra ikusi zen 1958an, baina hiru urte geroago hil egin zen.

**Abertzalesun tradisionalari kritika gogorra zuzentzen zion: "Emakumeek jarduera guztiek bete ditzeakegu"**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

ELA: Nafarroako sindikatua

**ELA 100 AÑOS**  
musikal sindikatua

**Luis Santesteban encarna a sus 96 años (cumplidos en 2011) el arquetípico de activista sindical de toda la vida, del obrero que comenzó a trabajar a los 17 años en la siderurgia Victoriano Etxebarri, de Zubiri, y que casi 80 años más tarde sigue afiliado y milita en ELA a corazón abierto. Sin haber ocupado nunca ningún cargo en la organización, resume con su vida la entrega de miles de solidarios que han hecho del sindicato la herramienta reivindicativa que ha legado a ser hoy en día. Durante la II República, impulsó la agrupación de Zubiri junto a su hermano Felipe, Sebastián Larrainzar, Domingo Sodupe, etcétera, e incluso pusieron en marcha una caja de resistencia que abonaba cuatro pesetas diarias a cada afiliado en huelga. También fundaron una mutua que cubría los accidentes laborales y otras iniciativas Izquierdistas, lo que les supuso aparecer en la lista de enemigos del golpe franquista en Zubiri. El alcalde carlista, a quien meses antes habían apodado a apagar el incendio de su caserío, los salvó de la Guardia Civil. Tras ser obligado a alistarse en el Ejército nacional, desertó para poder visitar a su padre, a punto de morir en Zubiri. Estó le puso de muerte en Consejo de Guerra, y tras 40 años de supervivencia en la dictadura, acudió por su propio pie a afiliarse a ELA en cuanto el sindicato se legalizó en abril de 1977.**

**Afiliado a sus 96 años, en 2011 es símbolo de la entrega histórica de miles de solidarios**

**Luis Santesteban Eskisabel (Zubiri, 1915)**

**ELA BIHOTZEAN: LANGILE SOLIDARIOA**

**ERE 96 urtekin eta 2011. urtean, Luis Santesteban hitz egosiko sindikalisten kurra bilurtu da. Langile fina, 17 urterekin Zubrikoko Victoriano Etxebarriren zerrategian hasi zen lanetan, Primo de Riveraaren diktadura garaipen urrunetan. Alabaina, 80 urte geroago, ELAren afiliatua da eta gainera, bihotzez Erakundearen barnaean inklusio ardura aditu ez badu ere, bere titulazalekin laburbiltsen du mende honetan zeñar milaka solidarioek egindako, ELA gaur egungo alaarrakotzeko tresna bilurtu arte. II. Errepublikako garaian Zubrikoko sindikatuaren badura sortu zion bere amate Felipetxikin, Sebastian Larraintza, Domingo Sodupe eta abe-**

**rrakoen. Gainera, greba egun batzitzagatik lau pentsaloi ordaina eratzen zuen orreagintzak kubo bat indarren jaxi zuten. Ez zen bere simeon bokorra, Ian istripuetarilo multa bat eta beste motatako jarduna aduariak arazak ekerri zitzieteisko: 1936ko frankistek aerotzen zirenean ziren, eta Guardia Zibile Zubirin agertu ziren halen bila. Zorionez, hilabete batzuk lehengago sute bat izaitasun laguntza emeritengatik aldiak karlistak defenditu ztuz. Geroago, Luis Santesteban, bilharria eraman zuen gerra frontetik ihes egin zuen. Gerra Kontseilu batzuan bukatzeko. Azkenik, diktaduraren 40 urte ondoren, bere labur inesa erman zion ELAren egoitzan, 1977an.**

**96 urteko afiliatura, milaka solidarioen borrokaren ikurra da 2011n**

**ELA**  
musikal sindikatua

## Cien años de transformación y lucha

**EL CASCO Viejo de Tafalla vio nacer a caballo de los siglos XIX y XX a dos hermanos que marcarían el cambio de rumbo de ELA en su camino hacia la sindicación social, las prácticas revolucionarias y la independencia definitiva de los partidos políticos. Los Urroz, Isidoro y Manuel, encabezaron la apuesta solidaria por la revolución de octubre de 1934, lo que les costó la cárcel y la posterior represión tras el golpe de 1936. Sin embargo, ambos lograron salvar la vida, seguramente gracias a una antecita inaudita: a Manuel le había tocado la lotería a principios de 1934 y pudo comprar una radio que compartía con sus vecinos del barrio, entre otros numerosos carelistas. Al estallar el golpe, muchos de ellos recordaron su generosidad y lo protegieron, a cambio de ocultar cada noche a casa de los Urroz a escuchar las arrengas fascistas de los generales franquistas. Al margen de ello, el compromiso revolucionario de los Urroz en 1934 pruebla la postura decidida de ELA de Tafalla en favor de los obreros, llamando a la huelga general. Así lo certifica el documento hallado en 1980 en los muros de la antigua caseta de Tafalla, donde firman todos los sindicalistas encarcelados por impulsar la revolución social. Solidarios, agitadoras y anarcosindicalistas se unen a la tribuna de los Urroz, Isidoro y Manuel.**

**Impulsaron la huelga de octubre de 1934, lo que les costó semanas de cárcel**

**Isidoro Urroz Mélida (Tafalla, 1898-1956)**


**TAFALLAKO IRAULTZAILEAK**

**Manuel Urroz Mélida (Tafalla, 1901-1986)**

**TAFALLAKO Alde Zaharran jai ziren, XIX eta XX mendean artuan, ELAren bilakaera erakdata zuten bi arre. Alderdiko politikoenetatik urrundu, jarduera iraultzailea sustatu eta aldeguerriaren sozialak alian jarri zituzten Urroz anaiek, Isidorok eta Manuelek. Hilek izan ziren 1934ko urriaren iraultzaren aukera desa egiaztatzen, eta horregatik esperontzat eta 1936ko kolpe ondoko errepresioa jasan behar izan zuten. Zorionez, bizirik stera ziren biak, seguraski pasadizo bizi eta aisegaitza den batik esker. 1934ko hasieran Manuell loteria tolakatu atzaintzat, eros zuen irratia simeola gurtzaketa partekatu zuen. Horren urtean karlista asko omen zeuden, eta 1936ko kolpoa gauzatu ondoren horiek izan ziren Manuekin euskal-sindikalismoa gogoratu zutenak. Besti baitza sabotazearen truke, Urrozaren atxira hurbiltzen ziren gauero frankisten irratzaio mespretagaztiak entzunera. Horretaz aparte, 1934ko urrian Urrozak erakutitako jarraia iraultzaileak Tafallako ELAren langileen aukera jarduera frogatu zuen, greba orokorrera deitzu. Beste agiri batetik ere gauza bera egiazatzen da: Tafallako espetsu azkenoren orriean perperto bat aurkitu zuen 1980an, eta hortan agertzen dira 1934ean gartaslearen zituzten sindikalista guztiek. Solidarioak, ugertatik eta amarrakatik hor zuuden, Isidoro eta Manuel Urrozekin batera.**

**1934ko urriaren greba bultzatu ondoren espetxeratu zituzten**


**ELA  
EUSKAL SINDIKATUA**



agertu dira, betiko botere politikoek eta ekonomikoek defendatu duten Nafarroa monolitikoaren eta grisaxkaren aurka.

Hori guztia praktikara eramateko, ELAk aukerako indarra izatearen sindikalismoa indartu behar du. Izan ere, botere politikoei aurre egiteko bide bakarra da, maiz UGT eta CCOO sindikatuen adostasunarekin langileentzako kaltegarriak diren legeak onartzen baitituzte (pentsio-murrizketak, etengabeko lan-erreformak, talde-neoziazioari buruzko lege berria, eta abar). Gainera, enpresak gero eta erraztasun handiagoak dituzte lan-eskubideak murrizteko, eta krisi ekonomikoa atze-oihaltzaterabilten ari dira, langileak beldurtzeko, langabeziaren mehatxua eta bazterketa gero eta hurbilago ikusten baitituzte, jada horietan erori ez badira. Mitxel Lakuntzak azpimarratzen du "erantzun posible bakarra oinarrietatik jardutea dela, lan-zentroetan presentzia izatea, kide berriak egitea eta lan-harremanak sindikuetan biltzea, enpresaz enpresa, industrialdez industrialde eta eskualdez eskualde". Eransten du, gainera, "laster errealityak erakutsiko digula sindikatuk gabeko langileen lan-baldintzak gero eta okerragoak izango direla, eta okerre-ra doazela etengabea, nagusiek edo urrunekoek konponbidea ematearen zain egon beharrean beren jarduera antolatu eta enpresaen gertuko neoziazio-eremuak zabaldutu dituzten langileen baldintzakin konparatz".

Azken finean, gaur egun eta datozen urteetan, ELAk kide-kopurua areagotze-ko erronka antolatzaleari egin behar dio, hori baita bide bakarra enpresa gehia-gotara iristeko, aukerako indarra izateko eta independentzia politikoa eta ekonomikoa edukitzeko, diru-laguntzen truke gezurrezko konpromisorik hartu gabe eta lan-aldarrikapenekin zerikusirik ez duten organoetan parte hartu gabe. Mendeurreneneko aitorpenean berretsi duen moduan, "ELAk erronkari aurre egingo dio".



Ehun urtez eraldatuz eta borrokan


gabean (partiduak legez kanpo uztea, komunikabideak ixtea), eta inolako indarkeriarik ez duen Nafarroa baten alde borroka egiteko erabaki irmoa hartu dugu. Ezbarik gabe, azkeneko helburu hori hurbilago dago, 2011ko urriaren 20an ETAk borroka armatuari uzten ziola iragarri baitzuen. ELAk harrera optimista egin zion ekimenari, hertsapen ororen gandik aske gizartea eta herri kohesionatuagoa lortzeko funtsezko urratsa izanik.

Ildo beretik, sindikatuak bere burujabetasunaren aldeko jarrera indartu du. Hala, behin eta berriz adierazi du herritarrek izan behar dutela subjektu politikoa bakarra, eta haiei demokratikoki galdu behar zaiela Nafarroak zein estatus politiko izan behar duen. Horixe zen 1982an egin ez zena, erreferendumik gabe Foruaren Hobekuntza ezarri zenean. Jarrera hura ELAk defendatutako burujabetazaren aurkakoa da, guk atxikimendu askea eta borondatezkoa defendatzen ditugulako, politikari askok ia sakratutzat jotzen dituzten aurre esentzialismorik eta testu aldaezinik gabe. Beste modu batera esanda, Estatutua edo Hobekuntza ezin dira inoiz herritarren borondatearen gainetik egon.

## 7 ELA, etorkizunera begira: enpresak sindikatutan biltzeeko indarra

Mendeurrenaren atarian, ELAk inoiz baino izpirituanagoa eta oldarkorragoa azaldu du Nafarroan, etengabeko murrizketa sozialei eta nagusi den eredu neoliberalari aurka eginez. Horregatik, elkarren segidan hiru greba orokor deitzeaz gain, ordutegi komertzialen aurkako mobilizazioak antolatu ditu (*Jaietan, denok jai kanpaina*). Aldi berean, ELAk bere indarra erakutsi du kaleetan, baita jendea mobilizatzeko duen gaitasuna ere, eta agerian utzi du milaka nafar beligerante daudela, establishment politikoaren eta sindikalaren kontra, 2008an Nafarroako Urrezko Domina UGTri, CCOOrri eta CEN patronalari emateko ekitaldian ikusi bezala.

Dudarik gabe, ELA izan da krisia eragin duten gehiegikeria kapitalistak langileei ordainarazteko saiakerei aurre egiten indartsuen saiatu dena. Milaka pertsonek sindikatuaren mezua babestu dute azkeneko hiru greba orokorretan (2009ko maiatzaren 21ean, 2010eko ekainaren 29an eta 2011ko urtarrilaren 27an), eta Nafarroa alternatibo, sozial, euskaldun eta ezkertiar horren lider den sindikatuaren




greba entzutetsuak gertatu ziren Cementos Portland, Leitzako Sarrio edo Landabengo Expert enpresetan, besteak beste. Otaegik azpimarratu zuen bezala, "ELA euskal sindikatua izatea aitzakiatzat erabili dute UPNk, PSNk, UGTk eta CCOOk, gure bazterketa justifikatzeko; ez dira ausartzen benetako arrazoia azaltzera. Sindikatu independentea gara, langileekin dugu betebeharra, eta ez dugu gure aldarrikapena aldatuko organo ofizialetan parte hartzeko edo diru-laguntzak eskuratzeko. Horregatik da ELA bestelakoa Nafarroan. Azkeneko 25 urte hauetan, amaierara arte aurrera eraman diren lan-gatazka edo aldarrikapen guzietan parte hartu dugu".

## 6 Gizarte-eredu ezberdin baten aldeko apustua: justizia soziala eta burujabetasuna

Amaitzeko, 2004. urtetik gaur arte Mitxel Lakuntza izan da Nafarroako sindikatuko koordinatzailea. Nahiz eta urte hauetan zailtasunak areagotzen joan diren (krisia, desindustrializazioa...), ELAk bere eredua eta Nafarroako langileen artean duen garrantzia egonkortu ditu. Sindikatuak berdintasunezko gizarte-eredu bidezkoago baten lortzen saiatzeari ekin dio, eta baita memoria historikoa berreskuratzeari ere. Halaber, kontra egin die Euroaren Itunari eta zerbitzu publikoetan gauzatutako Herri Ekimen Legegilean lanean dihardu eta lana eta aberastasuna banatzeko kanpainak martxan jarri ditu. "Ikusgai egon behar genuen" azpimarratu du Lakuntzak.

Hala, ELAk ahaleginak bikoiztu ditu langileei eragiten dieten eremuetan: txosten ekonomikoak eta teknikoak sendotu ditugu, gero eta kaltegarriagoa den zerga-legediari aurre egiten diogu, hezkuntzaren eta osasun publikoaren aldeko borroka indartu dugu, eta abar. Zentzu horretan, Foru Gobernuak urte amaieran aurkezten duen aurrekontu-proiektuaren gainean ere jarduten gara, horren gabeziak agerian uzteko, eta beste bide bat ere irekiko dugu, lurra eta ekologismoa defendatzeko eta AHTri edo hondakinak errausteko instalazioek aurka egiteko. "Gizarteak, eta, hortaz, ELAk, kide aktiboak behar ditu, berdintasunezko gizarte zuzenagoa lortzeko", horixe da Mitxel Lakuntzak behin eta berriz errepikatuko duen mezua. ELAk euskararen alde egindako apustua sindikatuaren bereigarrietako bat izan da, baita eskubide guztiak pertsona guztientzat printzipioaren defentsa ere. Horregatik, Estatuak ideiak kriminalizatzen dituela salatu dugu eten-




## 5 ELA: Gobernuaren UGT eta CCOO eredu baztertzaleen kontrako alternatiba

ELAk afiliazio-lanari ematen dion lehentasuna nabarmena da: gaur egun, 110.000 kide ditu Euskal Herria osoan, eta horietatik 11.000 nafarrak dira. Gainera, Foru Erkidegoko sindikatu-ordezkarien % 21 baino gehiago ELAkoak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, % 40 gainditzen du. Sindikatuak Jose Elorrieta buru zuela erantzukizun berriak hartu zituen 80ko hamarkadaren amaieran, eta 1976. urtetik ezarrita zegoen zeregin bati ekin zion: "Euskal langileak oinarri dituen politika aurrea eramatea Euskal Herrian".

Nafarroan, ordea, laster topo egin zuen politika baztertzale batekin. Izañ ere, Urralburu buru zuen Nafarroako Alderdi Sozialistaren ostean, UPNren agintaldia etorri zen, Juan Cruz Alliren zuzendaritzapean hasieran, eta Miguel Sanzekin gero, beste 16 urtez. Horren aurrean, ELAk eredu sindikal bera mantendu du, bi ideietan oinarritzen dena: batetik, independentzia ekonomikoa, sindikatuaren euskarriaren % 90 baino gehiago kideen kuotetatik jasotako dirua baita, eta, bestetik, autonomia politikoa, berebzikoa baita erabakiak hartzeko eta gure estrategia sindikala gauzatzeko, beste erakunde batzuek eskainitako adostasunarekin eta gizarte-bakearekin erosoa dagoen Foru Gobernuaren botereari aurka egitea lehentasuna izanik.

Nafarroan izandako ibilbidean zehar, ELAk hiru koordinatzaile orokor izan ditu. Jose Ignacio Sueskun koordinazio-lanetan aritu zen 1980 eta 1994 urteen artean. Garai hartan sindikatuak, egonkortasuna lortu, eta hedatu egin zen: % 4 ordezkaritza izatetik % 16 ordezkaritza izatera pasa zen, eta erabateko arrakastatzat har liteke hori, 70eko hamarkadaren amaieran sigla-mordoa zegoela aintzat izanik. Enpresa garrantzitsuetan batzarretan oinarrituta eredu pertsonalista nagusi zen, eta ELAk ere bere apustua egin zuen afiliazioaren eta antolatutako sektzio sindikalen alde.


1994 eta 2004 artean, Jose Mari Otaegiri egokitutako zitzzion antolamendu-erantzukizun hori, eta hark zuzendu zituen ELAren urratsak urte erabakigarri haietan, orduan hasi baitziren UPNren gobernu eta UGT eta CCOO sindikatuak beren elkarrizketa sozialerako eredu partikularra ixten. ELAk, bere aldetik, erabaki zuen talde-negoziazioaren aldeko apustua indartzea eta patronalari aurre egitea zela lan-egoera eta soldatza-baldintzak hobetzeko bide bakarra. Ondorioz, gatazkak eta



zeten eta antolamenduan lan egiteko modua 76. urteko ahalmen teorikora egokitzen joan gara". Zentzu horretan, 30eko hamarkadan jada ezarritako erresistentziakutxak berebiziko garrantzia hartu zuen. Are gehiago, sindikatuaren aldi modernoan, ELAren bereizgarri bilakatu zen, eta baita langileentzako tresna ere, aberastasuna talde-neoziazio bidez banatzeko.

Beste era batera esanda, ELAk beraren historia modernoan funtsezkoa izan den erabaki bat hartu zuen orduan: alderdi politikoetatik erabat aldentzea, hori baita jarduera sindikal bete-betean aurrera eramateko berme bakarra, trabarik eta mendekotasunik gabe. Ildo beretik, sindikatuak autonomia finantzarioa ezartzea erabaki zuen, diru-lagunza publikoen mende ez egon beharren, baizik eta kideek kuoten bidez egiten dituzten ekarpenekin funtzionatzeko. Izan ere, jardueira sindikal askea bermatzeko modu bakarra zen, bazkideekin hartutako konpromisoetatik haraindi joan beharrik izan gabe. Hau da, langileen sindikatu abertzale izateko oinarriak ezarri zituzten.

Nafarroan izandako bilakaerari dagokionez, sindikatua berreraikitzea lan neket-sua izan zen; baina 1976an frituak eman zituen, ELAk lehenbiziko loka ireki baitzuen Iruñean zabaldu zuen, Navas de Tolosa kalean, alegia. Bertan, oso baldintza txarretan oraindik ere, Olatz Sorozabal, Donato Agirre, Iñaki Etxeberria eta Emilio Amostegi bazkideek lan egin zuten, besteak beste. Halaber, ELA beste eskualde batzuetan jarduten hasi zen. Adibidez, Bidasoa inguruan, Savera eta Funvera enpresen inguruan, betiere, eta Sakana, Sunsundegui, Magotteaux eta Cementos Portland buru dituen industria-ehunaren jabe den eskualde ekimentsua. ELAk Erriberan lan handia egin zuen, Juanjo Larraza, Jesus Miguel Larrasoain edo Ramon Goldarazena "Willy", kideen eskutik, besteak beste, eta Iñaki Irisarrik zuzendutako taldeak jarraitu zuen, gero. ELA sindikatuan enpresan bertan lan egin du, herriz herri, eta urte luzez aukera aldarrikatzaile bakarra izan da nagusi izan diren ereduen aurrean. Hala, ELAren ordezkaritza Erriberan % 5 izatetik % 22 izatera pasa da azkeneko 15 urteetan, eta horren aspaldikoak ez diren garai harietan gertaera pentsaezina zen hori. Horri esker, erakundeak egon-kortasuna lortu du, eta, zalantzarik gabe, Nafarroako sindikatua izendapena irabazi duela aitortu behar zaio.




Ehun urtez eraldatuz eta borrokan

## 4 ELAren birsorkuntza langile-sindikatu abertzale gisa (1976)

Gerratik bizirik atera eta erbesteratu ez ziren kide gehienek sindikatua klandestinitatean berregiteko ideia alboratu zuten garai batez. Hala eta guztiz ere, Iruñean grebak egin zituzten 1947an eta 1951n, frankismoa garaitzeko gogoak baino, biztanleen miseria-egoerak bultzatuta. Dena dela, bi ekimenetan lehengo solidarioek eta 70eko hamarkadan ELAko bazkide bihurtuko ziren gazteek parte hartu zuten. Nafarroako industriaren eta langileen egoerak erabateko aldaketa izan zuen 1964tik aurrera, Foru Aldundiak ordura arte nekazaritza-eremua zena poliki-poliki industrializatzeko laguntza eman baitzuen.

Garapen industrial hori ezinezkoa zatekeen nafar langileen parte-hartzerik gabe, eta urte gutxi batzuk geroago, aldarrikapenen eta lan-gatazken lehentasun bihurtu ziren. Langileen loraldi horren sorburutzat jotzen da 1966ko Iruñeko Balazten Greba, Txantrean, eta horren atzetik Potasas, Motor Iberica eta Torfinasa enpresetako gatazka epikoak etorri ziren. ELAk pazientzia eta irmotasunez jardun zuen, eta organizazioa berreraikitzeko beharrezko egitura sindikalak prestatu zituen, frankismoa amaitu bezain laster. Bien bitartean, Nafarroako kide gutxi batzuk Iparralden erbesteratutako zuzendaritzara txostenak bidaltzen zituzten, Nafarroako grebei buruzkoak, eta Inglaterrako Authi (gaur egungo Volkswagen) enpresaren zuzendaritzarekin bitartekaritza-lanetarako eskaerak egin zituzten. Horrez gain, ezkutuko bidaia antolatu zuten, eta ELAko zenbait bazkidek Nafarroako gatazka-egoeraren berri eman zieten ingeles metalurgialariei, 1974. urte ingurura.

Nafarroako solidario horiek ere garrantzia izan zuten sortu berria zen ELAren konfederazioan, eta, hain zuzen ere, hamabi kide inguruk Eubako eta Eibarko fundazio-biltzarretan parte hartu zuten, 1976an, besteak beste: Miguel Angel Abarzuza, Javier Ayesa, Javier Arriola eta Damaso Uribeetxebarria. Sindikatuak ardatz estrategiko batzuk ezarri zituen biltzar horietan, eta horiek izan dira aurrentzean sindikatuaren bilakaera markatu duten ildoak: independentzia politikoa eta autonomia finantzarioa, hau da, kuotetan oinarritutako proiektua. Gainera, antolamendu-eredu konfederatu baten aldeko apustua egin genuen. Jose Elorrietaren hitzetan, "1976ko biltzarrean izandako bultzada 80ko, 90eko, eta 2000ko hamarkadetan aprobetxatu dugu, eta uste dut orain ere aprobetxatzen jarraitzen dugula. Ez dugu 76. urtean hartutako izaera aldatu, eta politikan, finant-




Hil aurreko gauean gutun bat idatzi zion familiari: "Arreba maitea: gutun hau jasotzen duzunerako lurretik joana izango naiz. Agur esan nire lagun guztiei. Eta zuentzat, Agustin eta Maria Rosa, muxu eta besarkada asko, eta eman iezazkiozue gurasoei ere nire partez. Gurasoak maitasun handiz kontsola itzazue, heriotza ate joka duen eta maite zaituzten anai honek eskatzen dizue. Jaungoikoa tarte, espero dezagun hiltzen garen azkenak izatea, eta beste batzuk jaso dezatela aberri berriak izango duen fruitua. Gora Euskadi Askatuta. Jose Maria Amadoz, euskal solidarioen San Andres bataloiiko komisarioa".

Errepresioa irakasleekin ere grinatu zen, eta are gehiago ELAk kide zirenkin, esaterako: Julia Fernandez Zabaleta eta Raul Archanco Zubiri (azken hori Nafarroako ANVko burukidea zen gainera), Iruñeako lehenengo Euskal Eskolako fundatzaileak, alegia, eta Iparraldera eta Mexikora atzerriratu behar izan zuten, hurrenez hurren.

Frankistek irabazi bazuten ere, Nafarroako ELAk kideetako batzuk ez zioten borrokatzeari utzi. Adibidez, Baztango Alejandro Elizalde Comète sarean sartu zen, Frantziako eta Belgikako erresistentziarekin batera, eta 798 iheslari nazien-gandik salbatzen lagundu zuen, britainiar pilotuak ia gehienak. Gestapoak atxilotu zuen, eta zenbait kontzentrazio-eremutan egon zen, hala nola Mauthausen, iparramerikarrek libratu zuten arte, 1945eko maiatzean. Nekez atera zen bizirik gatibualdi gogor hartatik, eta zazpi seme-alaba utzi zituen 1946an Kanboko erietxeen hil zenean (Iparralde). Solidarioen jarrera heroiko horrek eman zion amaiera ELAk lehen aroari Nafarroan, eta ia 40 urte iraungo zituen gau luze diktatorial hark ilundu egin zuen.

Gerra Zibilean erabateko porrota izan ostean, 70eko hamarkadara arte ezin izan genuen ELA berreraiki, tartean izandako erbestealdien, errepresioaren eta edozein jarduera politiko eta sindikal sortzeko debekuaren ondorioz; baina hori beste istorio bat da...




### 3 Gerrate Zibila eta errepresio faxista solidarioen aurka (1936-1945)

ELAk 1936an Nafarroako eskualde guztietan presentzia zuela ukaezina zen, 4.835 eskulangile eta 1.165 nekazari baitzituen baziakide. Nafarroako langileek bi ordezkarri zituzten Foru Batzorde Administratiboan, eta Bienvenido Cilveti zen horietako bat. Sindikatuak erabaki zuen konfederazioaren hirugarren biltzarra Iruñean egitea, 1936ko uztailaren 24an (bi biltzar eginak ziren jada, Eibarren bata eta Gasteizen bestea). Horrek guztiak langileen sindikalismo abertzaleak aurrerapen geldiezina izango zuela iragartzen zuen; baina ELAren biltzarra egiteko astebete falta zela, altxamendu faxistak asmo guztiak zapuztu zizkien, eta errepresioa, hilketak, Gerra Zibila eta diktadura nagusi izan zituen aldi berri bati eman zitzzion hasiera.

Solidario asko eta asko falangisten eta karlisten eskuetan hil ziren, besteak beste: Lizarrako Fortunato Agirre eta Luis Adrian eta Iturengo Pedro Gorostidi. Beste batzuk, Juan Perez Marturel kasu, bere buruaz beste egin zuten, torturatuak izango zirela uste zutelako. Beste asko bizirk atera ziren, ezkutatuz edo derrigorrez tropetan inskribatuz. Manu Robles-Arangiz, ELAko lehendakaria, Iruñean zegoen biltzarra prestatzen; baina garaiz ihes egitea lortu zuen, Bilbora. Frankistek ELAk Nafarroan zituen lokal gehienak suntsitu zituzten, sindikatuak debekatu zuten, eta kideak beldurtu edo bortizki zapaldu zituzten.

Errepresio izugarria jasanagatik ere, hainbat nafar kidek -Felipe Oñatebia, Felix Ezcurdia eta Modesto Urbiola, esaterako- Arabako Sarea izenez ezaguna zen organizazioan parte hartu zuten Gerra Zibilean. Ezkutuko mugimendua zen, eta hark erregimen frankistak jazarritako asko pasatu zituzten mugaz beste aldera, Baztandik eta Iparraldetik. 1941ean, atxilotu eta espoxeratu egin zituzten, eta heriotza-zigorra ezarri zieten. Hala ere, azkeneko momentuan 25 urteko espoxezigorra ezarri zieten. Zigorra bete baino lehen atera ziren guztiak, Luis Alava izan ezik, hura exekutatu baitzuten. Izan ere, frankismoaren errepresio-politikak zigor eredugarriak ezarri nahi zituen, disidenteentzat artean izua zabaltzeko.


Beste batzuk Gipuzkoara pasatzea lortu zuten, eta sortu berri zen Euzko Gudarostean sartu ziren, hala nola Erronkariko Jose Estornes Lasa eta Iruñeko Jarauta kaleko Jose Maria Amadoz. Azken hori frankistek 1937ko abuztuan atxilotu zuten, Santoñan, eta hilabete batzuk beranduago fusilatu zuten, 22 urte zituera.



STVk Nafarroan inoiz ez bezalako hazkuntza izan zuela. Agian egitura eta orientazio berriak eragina izan zuen horretan, edo agian, hartutako gorakada oraindik mantentzen zen.

Noski, langileen artean indar handiagoa hartzen zihuan heinean, ELAren ekintza sindikala ere areagotzen joan zen. Prozesuan, 1934ko greba iraultzailea piztu zen, eta bertan, Nafarroako solidarioek parte hartu zuten, Iruñean, Auritzan, eta Zarraztelun, eta batez ere Tafallan. Azken horretan, ELAko sei bat kide atxilotu zituzten, kapitalismoaren aurkako matxinada pizteagatik. Kartzelan gela bera konpartitu zuten beste sindikalista batzuekin, eta horrek langileen ekintza-unitatean sendotu zuen. Horrela irakur daiteke dokumentu batean, hamarkada batzuk beranduago Tafallako presondegiko horma bat lurrera botatzean agertu zena: "1934ko urriko mugimendu iraultzailea: hilaren seian behean datozen Tafallako langileak presondegiko gela honetan sartu zituzten, eta horren oroigarri, gela berritu zuten, bi departamentuak elkarren artean komunikatz; presondegia ez zen nahikoa izan barrutiko atxilotuak hartzeko". Sinatzaileak: Isidoro Urroz, Manuel Urroz, Eugenio Arregui, Felix Yoldi, Martin Ojer, Manuel Belso, Antonio Lopez, Pedro Bermudez, Gil Baztan, Manuel Lorea eta Teodoro Vidondo Huarte.


Errepresio-garaia izan arren, greba ugari egin ziren, eta Nafarroako solidarioek aktiboki parte hartu zuten. Esate baterako, historikoa da Felipe Oñatebiaren ekinenez ELAk 1935eko apirilaren 15ean Iruñean antolatu zuen lanuztea, langabettuei laguntasuna erakusteko, eta aipatzekoak dira ere Zangozan, Atarrabian, eta Lizarran eman ziren gatazkak. II. Errepublika amaitu zenean, ELAren langile-nortasuna indartuz zihola antzeman daiteke. Era berean, euskal abertzetasuna arindu eta berregituratu zen, langileen mugimenduarekin eta funtzió sindikalarekin bat egiteko. Adibide gisa, hona hemen Lan Deia aldzikariaren argitalpen hau (1934-I-19): "Euskal solidarioen artean erein nahi dugun izpiritua iraultzailea, ekimena, alegia, gure aldarrikapenen alde borrokatzeko nahi irmoa eta iraunkorra da (...). Gizarte-iraultza egin nahi dugu Euzkadin".



Honako talde hauek aparteko garrantzia hartu zuten: Lizarrakoa, Juan Alzugaray eta Fortunato Agirre buruan zituela; Tafallakoa, Isidoro eta Manuel Urrozekin; eta Agoitzekoa, Modesto Urbiola eta Pedro Sagües Uroz zituela. Hala ere, solidario-talde gehiago ere bazeuden: Olazti-Altsasu, Zubiri, Almandotz, Esa, Artaxoa, Bakaiku, Imarkoain, Ledea, Irurita, Atarrabia, Etxarri-Aranatz, Leitza, Zangoza, Irurtzun eta Erriberako kokapen garrantzitsuak, hala nola Corella, Zarrakaztelu, Sesma, Nazar, Martzilla, Carcar eta Milagro, eta, horrez gain, kide aktiboen presentzia nabarmena izan zen beste leku askotan (Murchante, Lakuntza, Gares, Ituren...). Egindako jarduerek eman zieten solidario izendapena, nekazari-kooperatibak, langileentzako ekonomatuak, gaixotasun-mutuak, langabeenzako lagunza-funtsak... abian jarri baitzituzten. Hori guztia orduko sindikalismoaren isla da, zalantzak gabe. Izan ere, garai hartan laguntzak lehentasuna zuen, gizartea ez zuelako langabeziako diru-laguntza publikorik, ez pentsiorik, ezta horren gisako beste laguntzarik ere. Handik gutxira, ELAk langileen aldarri-kapenekin osatuko zuen bere jarduna, geroago ikusiko dugunez.

## 2 ELA, langileen sindikatua 1934ko urriko iraultza

ELA indarra hartzen zihohan, Solidaridad de Obreros Vascos izenpean 1933ko apirilean Gasteizko biltzarra egin zen arte, eta bi jarduera-ildo nagusi hauetan oinarritzen zuen bere ekimena: langileentzako prestakuntza, Nafarroa osoan ikastaroak emanez, eta ekitaldi publikoak, proposamen sindikalak ezagutzera emateko. Hala, gogoangarria izan zen 1933ko maiatzaren 7ko mitina, jada desagertu den Iruñeko Euskal Jai pilotalekuau. Jendetza izugarria bertaratu zen Miguel Esparza, Julio Jauregi eta Jose Ariztimuño "Aitzol" (urte batzuk beranduago frankistek fusilatu zuten) entzutera. ELAren bigarren biltzar harten, sindikatua SOV izatetik STV (Solidaridad de Trabajadores Vascos) izatera pasa zen, eta proposamen hauek jorratu zituzten, besteak beste: aparteko orduak desagerraztea eta lanaldia 40 ordura murriztea; familia-soldatza ezartzear; kooperativismoa, mutualitatea eta gizarte-aseguruak sustatzea; langile-prentsa sustatzea eta asteko egunkaria sortzea; etxe merkeak eraikitzea; itsasoko eta landako langileei arreta berezia ematea; industria-eskolak sustatzea; euskara hizkuntza ofizialtzat aitortzea; Euskal Unibertsitatea sortzea; eta abar. Gasteizko Batzarraren ondoko hilabeteetan, ELA-




## 1 ELA sindikatuaren sorrera eta hedapena Lehenengo euskal sindikatua (1911-1933)

Bazirudien XX. mendea ezberdina izango zela. Aurrerapen teknologiko, mediku eta zientifiko handien artean hasi zen. Biztanleek atzean utzi zituzten herrixkak eta baserriak, eta industrialde handietan bizitzen hasi ziren. XX. mendea ideologia handien arteko lehien mendea da, eta zenbaitetan norgehiagoka horiek indareria ere bilakatu izan dira.

Testuinguru horretan, 1911ko ekainaren 11n sindikatu berri baten estatutuak onartu genituen. Hurrengo hileko 23an, Bilboko Posta kalean Solidaridad de Obreros Vascos euskal sindikatu independentea sortu zen. Hantxe hasi zen gure historia. Igande hartan, uztailak 23, 178 langilek SOV sindikatuaren araudia onartu zuten, eta Luis Jauregibeitia izendatu zuten lehendakari. ELAren (Eusko Langileen Alkartasuna) ekimenak laster iritsi ziren Nafarroara, eta 1912. urtetik aurrera, bazituzten solidarioak, Iruñean eta Garesen, behinik behin. Nafarroa nekazari-lurraldea zen, eta horrek ELAren hedapena moteldu zuen, industria-langileak izan baitzituen abiapuntu. Lehenengo jarduera sindikal solidarioa Zubirin gertatu zen: Victoriano Echavarriren zerratokiek ELAko 40 baziak hartu zituzten, eta beren erresistentzia-kutxa abian jarri zuten, 20ko hamarkadaren amaieran. Hain zuzen ere, Luis Santesteban Eskisabel (Zubiri, 1915) bertan lan egiten zuten 60 langileetako bat zen. Haren lekukotasunak aparteko garrantzia izan zuen 80 urte beranduago. "30 edo 40 langile inguru ELAko kide ginen, eta hilero pezeta bateko kuota jartzen genuen, gutako bat gaixotzen bazen familia mantentzeko baliabideak izan zitzan".

Edonola ere, Errepublika aldarrikatzean (1931ko apirilaren 14an), ELA azkar hedatu zen Nafarroa osoan, eta tokiko 27 talde osatu ziren gutxienez, bost urte baino gutxiagoan. 1931ko urrian, abian jarri zen Iruñako taldea. Lan handia egin zuen, eta kide berriak lortu zituen. Iruñeko garai hartako solidario garrantzitsuenen artean, Honorato Pla, Anastasi Agerre, Felipe Oñatebia, Nicolas Garcia-Falces eta Bienvenido Cilveti, besteak beste.

1932ko martxoaren 12an, Iruñeko taldeak zuzendaritza-batzorde hau izendatu zuen: Felix Tirapu Recarte (lehendakaria), Bienvenido Cilveti Urquia (idazkaria), Felix Ezcurdia Elizari (diruzaina) eta Nicolas Miqueleiz eta Felix Zabalegui Setuain bokalak.




Ehun urtez eraldatuz eta borrokan

## Aurkibidea

<b>1 ELA sindikatuaren sorrera eta hedapena. Lehenengo euskal sindikatua . . . . .</b>	<b>3</b>
<b>2 ELA, langileen sindikatua. 1934ko urriko iraultza . . . . .</b>	<b>4</b>
<b>3 Gerrate Zibila eta errepresio faxista solidarioen aurka . . . . .</b>	<b>6</b>
<b>4 ELAren birsorkuntza langile-sindikatu abetxale gisa (1976) . . . . .</b>	<b>8</b>
<b>5 ELA: Gobernua, UGT eta CCOO eredu bazterzaileen kontrako alternatiba . . . . .</b>	<b>10</b>
<b>6 Gizarte-eredu ezberdin baten aldeko apustua: justizia soziala eta burujabetasuna . . . . .</b>	<b>11</b>
<b>7 ELA, etorkizunera begira: enpresak sindikatutan biltzeko indarra . . . . .</b>	<b>12</b>

*Argitalpen hau hurrengo hilabetetan plazaratuko den liburuaren aurrerapen gisa aurkezten da, izenburu berarekin. Aurreneko aldiz, azken 100 urteko Nafarroako ELA sindikatuaren historia osoa bilduko da liburu horretan.*



5.Kongresua Iruñean ospatu zen 1982ean (Gayarre Antzokian).



15.000 bat lagun bildu dira azken boladako greba orokoren manifestazioetan, behin eta berriro, Iruñeko Gaztelu Plazan.



# *Eta borrokan Ehun urteetan eraldatu*



**ELA: Nafarroako sindikatua**